



## **EBAZPENA (9/2010 esp., DURANGALDEKO HARAKINEN ELKARTEA)**

### **Osoko bilkura**

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria  
Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea  
María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea  
José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2011ko urtarrilaren 31n

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du DURANGALDEKO HARAKINEN ELKARTEAri buruzko 9/2010 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, ustez, lehia murrizten zituzten jardunbideak egin zirela zioen salaketa baten ondorioz.

### **AURREKARIAK**

**Lehenengoa.-** 2010eko uztailaren 13an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak, ustez Lehiaren Defentsari buruzko Legean debekatutako jokabideak egin zirela jakin zuen. Ondokoak izan ziren jokabide horiek:

DURANGALDEKO HARAKINEN ELKARTEAK bere kideen merkataritza-ordutegiak ezarri ditu, establezimendu batean azaldu den oharrean adierazten den bezala. Honakoa dio oharrek, hitzez hitz:

#### *DURANGALDEKO HARAKIN ELKARTEAK*

*Ekainaren 15etik Irailaren 30erarte harategi guztietan udako lan orduak hauek izango dira:*

#### *ZORTZI T'ERDIETATIK ORDU BAT T'ERDIETARARTE*

*Ostiral eta jai bezperetan 5etatik 8rak arte zabalik egongo dira.*

#### *AGRUPACIÓN DE CARNICEROS DEL DURANGUESADO.*

*Desde el 15 de Junio hasta el 15 de Septiembre ambos inclusive regirán en todos los despachos de carnes, el horario siguiente: 8,30 a 13:30 (incluso Sábados)*

*Excepto los Viernes y víspera de fiesta que se abrirá por la tarde desde las 17 a las 20 horas.*



**Bigarrena.-** 2010eko uztailaren 19an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariaren ebazpenaren bitartez, informazio erreserbatua hasiko zela erabaki zen, hala balegokio, bidezko zehapen-espedita ireki aurretik, gertakariak egiazkoak ziren egiaztatzearen, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**Hirugarrena.-** 2010eko uztailaren 20an DURANGALDEKO HAKINEN ELKARTEAri buruzko informazioa eskatu zitzaion elkarte horrek sinatutako oharra azaldu zuen establezimenduari.

2010eko uztailaren 29an establezimendu horrek esan zuen ez zuela inolako daturik elkarte horri buruz, ez zelako bertako kidea. Era berean adierazi zuen bere erakuslehoan azaldu zen aipamen bakarra establezimenduaren ordutegia ipintzeko txantiloia izan zela, txantilo hori aspalditik erabiltzen zuela eta, beharrezkoa izatekotan, kendu egingo zuela.

**Laugarrena.-** 2010eko abuztuaren 3an DURANGALDEKO HAKINEN ELKARTEAri buruzko informazioa eskatu zitzaion Merkataritza Dinamizatzeko Durangoko Bulegoari (lehen Merkataritzari Laguntza Teknikoa emateko Kabinetea).

2010eko abuztuaren 12an Bulego horrek jakinarazi zuen urte batzuk lehenago helburu hori zuen plataforma egon zen arren, orain inon ez dela elkarte hori agertzen.

**Bosgarrena.-** Egun berean, 2010eko abuztuaren 3an, DURANGALDEKO HAKINEN ELKARTEAri buruzko informazioa eskatu zitzaion BIZKAIKO HAKIN ETA URDAI-SALTZAILEEN ELKARTEAri (OKELBIZ).

2010eko irailaren 10ean OKELBIZek esan zuen ez zuela inolako daturik aipatutako elkarte horri buruz.

**Seigarrena.-** 2010eko irailaren 27an eta urriaren 14an DURANGALDEKO HAKINEN ELKARTEAri buruzko informazioa eskatu zitzaion ELKARTEEN ERREGISTROAri eta SINDIKATUEN ETA ENPRESEN ELKARTEETAKO ESTATUTUEN GORDAILURAKO BULEGO PUBLIKOARI (lehen Sindikatuen eta Enpresen Elkarteetako Erregistroa zena).

2010eko urriaren 7an eta 19an jakinarazi zuten erakunde horiek ez daukatela inolako daturik DURANGALDEKO HAKINEN ELKARTEAri buruz.



**Zazpigarrena.-** 2010eko urriaren 29an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ebazpen-proposamena bidali zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honi, bai eta aipatutako administrazio-espeditentea ere, 6/2010 zenbakia (Durangoko Harakinen Elkarte) duela Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honetan.

**Zortzigarrena.-** Auzitegiak 2011ko urtarrilaren 31ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, Juan Luis Crucelegui Garate jauna zela txostengilea.

### ZUZENBIDE-OINARRIAK

1. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, lkerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeko aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeke aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.*
2. Lehiaren Defentsari buruzko aipatutako legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*
3. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak, alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak, beren eginkizunei dagokienez, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikuluekin bat etorritik.
4. LDEZk LDEA honi egindako ebazpen-proposamenak dio ordutegiak gomendatu dituen subjektu arduradunik ez dagoenez, ezin dela informazio erreserbatuaren izapidearekin jarraitu, eta are gutxiago zehapen-espeditente bat ireki.
5. Lehiaren alorreko zehapen-prozedura bereziaren erregulazioak prozedura ireki aurreko fase bat azaltzen du, aldez aurretik zehazteko zehapen-prozedura irekitzeko inguruabarririk dagoen, eta zentzurik ez duten



zehazpen-espediente administratiboak irekitzea saihestu ahal izateko, hala badagokio.

Informazio erreserbatuaren faseari dagokionez, dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, 1997ko uztailaren 23ko ebazpenean (Espte.: R 213/97. Arquitectos Madrid) honela definitu zuen informazio erreserbatua: jarduera ezberdina eta zehapen-prozedura egon aurrekoa, bere helburua zehapen-prozedurak ebazteko ardua duen lehiaren inguruko agintariaren salaketa zein agindeiaren bitartez jakinarazi zaizkion eta zantzuen arabera legez kontrakoak izan daitezkeen gertakariak egiazkoak diren egiaztatzea dela, zehapen-espedientea irekiko den erabaki ahal izateko.

Hain zuzen ere, dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Zuzenbideko Oinarrietako 2.ak honakoa dio, hitzez hitz:

*“...Lehenengo eta behin, LDLren 36. artikulua erakuntza sistematikoa kontuan hartuta ondorioztatu da aurretiko eginbideak egitea edo, gauza bera dena, informazio erreserbatua egitea, jarduera ezberdina dela, eta zehapen-prozedura egon aurrekoa. LDLren 36.2 artikulua argi adierazten du: Zerbitzuak informazio erreserbatu baten instrukzioa egiteko erabakia hartu ahal izango du espedientea irekitzeko edo, hala badagokio, jarduerak artxibatzeke ebazpena hartu aurretik. Beraz ez dago zehapen-espediterik. Aldiz, administrazio-jarduera da eta bere helburua salaketaren egiazkotasuna egiaztatzea da, gertakariak egiazkoak eta zantzuen arabera legez kontrakoak diren jakiteko eta, horrela, zehapen-espeditentea irekiko den erabaki ahal izateko [...].*

6. Aztertzen gabiltzan kasuan LDEZk DURANGALDEKO HAKAKINEN ELKARTEAri buruzko informazio erreserbatuaren fasea hasi du, hala badagokio bidezko zehapen-espeditentea ireki aurretik. LDEZk jakin du Elkarte horrek bertako kideen merkataritza-ordutegiak ezarri dituela. “Carniceria-Charcuteria FRIAS” izeneko establezimenduan azaldutako oharraren ondorioz jakin dira gertakari horiek. Bertatik ondorioztatu da aipatutako Elkarte horrek bertako kide diren establezimenduen merkataritza-baldintza bat —hau da, merkataritza-ordutegia— zuzenean ezartzen zuen gomendio bat egin zuela.

Gogoan izan Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua debekatu egiten duela *taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: [...] lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea*. Adibide moduan, eta zehaztu gabe, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua a) atalean kolusiozko jokabidetzat hartzen du *Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean*



*edo zeharka finkatzea.* Merkataritza-baldintza horien artean dago merkataritza-ordutegiak modu hitzartuan ezartzea.

Arau-haustea egin dela ondorioztatu ahal izateko ezinbestekoa izango da subjektu arau-hausle bat edo gehiago egotea eta, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 61. artikuluko definizioaren arabera, lege horretan *arau-haustetzat jotako ekintzak edo ez-egiteak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira arau-hausleak.*

7. LDEAZk informazio erreserbatuaren fasea hasi du DURANGALDEKO HARAKINEN ELKARTEAri buruz, ustez merkataritza-baldintza bat —hau da, establezimenduen merkataritza-ordutegia—zuzenean ezartzen zuen gomendioa egin zielako bertako kideei. Administrazio-fase hori izapidetzean, inon ez da egiaztatu aipatutako pertsona juridikoa existitzen denik:

- 1.- Espedientean ez dira agertzen elkartearen izaera juridikoa azaltzen duten beharrezko elementu dokumentalak (sozietatearen negozio juridikoa eta elkarte hori arautzen duten estatutuak) eta, ondorioz, elkarte ez da Zuzenbidearen munduan agertzen.
- 2.- Administrazio-espedientean dagoen informaziotik ondorioztatu da Elkarte hori ez dagoela inskribatuta ez Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean ez Sindikatuen eta Enpresen Elkarteetako Estatutuen Gordailurako Bulego Publikoan. Hau da, Elkarte horrek ez du inolako islarik —ez eta hirugarrenen aurreko publizitatearen ondorerik ere— fundazio-helburuetan adierazitakoaren arabera erregistratuta egon litekeen administrazio-erregistro publikoetan.
- 3.- Azkenik, Elkarte horrek ez du inolako presentziarik Durangaldeko merkataritza-eremuan. Durangaldeko merkataritza-inguruan presentziarik ez duela argi ikusi da Merkataritza Dinamizatzeo Durangoko Bulegoan eta Bizkaiako Harakin eta Urdai-saltzaileen Elkartean (OKELBIZ) ez dutelako horren berri.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, LDEA hau ados dago LDEAZren proposamenarekin, hau da, Durangaldeko Harakinen Elkarteari dagokionez zehapen-espediterik ez irekitzeko proposamenarekin, ez delako egiaztatu Lehiaren Defentsari buruzko legearen aginduak ustez hautsi dituen subjektu arduradunen bat dagoenik.

Adierazitakoaz gain, Auzitegi honek agerrarazi behar du informazio erreserbatuaren izapidetan ez dela egiaztatu Durangaldeko harakinen artean hitzarmenik dagoenik euren establezimenduen merkataritza-ordutegia elkarrekin ezartzeko eta, ondorioz, ezin dela Lehiaren Defentsari buruzko legearen 1. artikulua hautsi izanaren zantzurik ondorioztatu.



Azaldu diren zuzenbide-oinarriak direla eta, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honek honakoa

**EBATZI DU:**

**BAKARRA:** Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena, zehapen-espediterik ez irekitzeko.

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 31

**LEHENDAKARIA**  
**JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA**

**LEHENDAKARIORDEA**  
**JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE**

**KIDEA**  
**M<sup>a</sup> PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI**